



Kode Etikoa



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN TURISMOA, S.A.

2022ko uztaila



- **AURKIBIDEA. KODE ETIKOAREN XEDEA**
- **APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA**
- **KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA**
- **KODE ETIKOAREN ONARPENA ETA BETETZEAREN BETEBEHARRA**
- **JOKABIDE PROFESIONAREN ARAU OROKORRAK**
- **BATZORDE BETEARAZLEA**
- **KODE ETIKOA INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA**



HITZAURREA. KODE ETIKOAREN XEDEA

- Kode etiko honen (aurrerantzean, “**Kode Etikoa**”) xedea SAN SEBASTIÁN TURISMO-DONOSTIA TURISMOA, S.A. (aurrerantzean, “**DONOSTIA TURISMOA**”) arautuko duten printzipio eta jokabide ereduak zehaztea da.
- Kode Etikoak abiapuntu izan nahi du DONOSTIA TURISMOAK legea betetzeko duen konpromiso irmoa erakusteko, bereziki arrisku penalen prebentzioari dagokionez.
- Hala, Kode Etikoaren helburua etikoki eredugarria den kultura islatzea da eta DONOSTIA TURISMOAREN balio identifikagarriak erakustea, betetze-kulturan oinarritutako azpiegitura sustatuz.



APLIKATIO EREMU SUBJEKTIBOA

- Kode Etikoa DONOSTIA TURISMOAren dokumentua da eta profesionalen lan arloko printzipio orokorrak ezartzen ditu, edozein delarik ere haien kontratua, hierarkia edo funtzioa, hala ere administrazio-organoko kide, zuzendari nagusi eta eremu ezberdinetako arduradunak nabarmentzen dira. Aurrerantzean, hauei erreferentzia egiteko “Profesional” erabiliko da banakoen kasuan eta “Profesionalak” taldeen kasuan.
- Honela, DONOSTIA TURISMOA osatzen duten sailek garatzen dituzten jarduera ezberdinak kaltetu gabe, Profesional guztiek une oro Kode Etikoaren xedapenak kontuan hartu behar dituzte eta hauetara egokitu.
- Horrez gain, Kode Etiko hau DONOSTIA TURISMOAk kontrata ditzakeen enpresa eta profesioletara aplikatu daiteke, beti ere kontratatuko jarduera haien jardueretarako garrantzitsua delarik. Horri dagokionez, enpresa eta profesional hauei eskatuko zaie, bakoitzari bere kontratuan, arrisku penalen prebentzioaren eremuan beharrezko neurriak hartu izana adierazteko.






KODE ETIKOAREN FUNTZIO INTEGRATZAILEA ETA INTERPRETAZIOA

- Kode Etikoaren helburua ez da DONOSTIA TURISMOAren ohiko jardueran gerta daitezkeen balizko kasu guztiak islatzea edo arautzea, baizik eta Profesionalen jokabidea bideratzeko irizpide argiak ezartzea eta, hala badagokio, laneko zalantzak argitzea.
- Kode etikoaren edo Corporate Compliance Programa osatzen duten dokumentuen interpretazioari buruzko edozein zalantza, hierarkiko nagusi hurrenarekin kontsultatu beharko da edo, hala badagokio, Batzorde Betearazlearekin.





KODE ETIKOAREN ONARPENA ETA BETETZEAREN BETEBEHARRA

- DONOSTIA TURISMOAren Profesional guztiek Kode Etikoa, eta hau eta Corporate Compliance Programa osatzen duten gainontzeko dokumentuak ezagutu, onartu eta bete behar dituzte, baita ulertzeko prestakuntza egin ere, bete beharreko arauak ondorioak izate aldera.
- Profesionalek Kode Etikoa bete beharko dute, haren balio eta printzipioak errespetatuz eta ezarritako jokabide ereduak jarraituz.
- Hau horrela izanik, Profesionalek, bereziki haien kargu beste Profesional batzuk dituztenek, Kode Etikoaren xedapenak bete beharko dituzte, beti ere egokitzen diren jarduerak, jarduerak eta ekintzak sustatuz
- DONOSTIA TURISMOAK Kode Etikoa haren Profesionalen artean komunikatu eta hedatuko du, haietako bakoitzari kopia bat emanez eta web-orriaren bitartez. Nolanahi ere, Profesional guztiek betetzeko konpromisoa idatziz onartu beharko dute.



JOKABIDE PROFESIONALAREN ARAU OROKORRAK

Kode Etiko honek DONOSTIA TURISMOAren Profesionalek behatu behar dituzten jokabide arauak ezarri ditu:

(i) Legearen betetzea eta delituzko jokabideen prebentzioa.

▪ DONOSTIA TURISMOAk eta Profesional guztiek indarrean dagoen legea errespetatu behar dute, Legeak eta araudia, protokoloak eta barne arauak ezagutuz, eta bereziki sailei eragiten dieten Corporate Compliance Programak barne hartzen dituen arauak, eta horrez gain, Profesionalek prestakuntza egokia jasotzea bermatu behar dute.

▪ Honela, DONOSTIA TURISMOAk eta Profesional guztiek une oro iruzurra eta legez kanpokoak diren praktikak ekidingo dituzte, DONOSTIA TURISMOArentzat edo haientzat onura zuzena edo zeharkakoa dakartzaten jarduerak bereziki, balizko delituak gauzatzea eragin dezaken jokabideak badira gehien bat.





ii. Aukera berdintasunarekiko errespetua eta segurtasunaren sustapena lanean.

- DONOSTIA TURISMOAK bermatuko du merezimendu eta gaitasun irizpideetan oinarrituko direla politikak, aukeratze-prozesuak, kontratazioak, ordainketak, Profesionalen lan baldintzak, prestakuntzarako sarbidea eta promozioa, nolahi ere, gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioari dagokionez, eta era berean arrazan, sexuan, ideologian, herritartasunean, desgaitasunean, sinesmenean edo beste edozein baldintza pertsonal, fisiko edo sozialetan oinarritutako diskriminazio eza bermatuz. Ez hori bakarrik, DONOSTIA TURISMOAK Profesional guztiak modu objektiboan eta jarduera profesionalaren arabera ebaluatuko dituela bermatu behar du.
- Orobat, DONOSTIA TURISMOAK Profesionalen prestakuntza egokia bermatzen dituzten politikak garatu behar ditu, profesional eta pertsona gisa hazteko, errespetuan oinarritutako lan-giroa sustatuz eta indarkeria, abusua edo beste edozein eraso baztertuz, bereziki fisikoa, sexuala, psikologikoa edo hitzekoa den edozein jazarpen edo abusu prebenitzeko. Oro har, DONOSTIA TURISMOAK sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako lan arloko protokoloa du eta baita berdintasun plana ere.
- DONOSTIA TURISMOAK pertsonen eta profesionalen eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartuko du, ardura sozialaren eta irisgarritasunaren irizpideen arabera, eta baita lana eta familia kontziliatuz.





- Halaber, DONOSTIA TURISMOAK laneko arriskuak prebenitzeko politika egokia sustatu eta aplikatuko du aktiboki, Profesional guztiei komunikatuz eta behar bezala betez. DONOSTIA TURISMOAREN Profesionalek lan arloko segurtasun eta osasun arauak bete behar dituzte, laneko arriskuak prebenitzeko eta gutxitzeko..

iii. Iruzuraren aurkako borroka.

- DONOSTIA TURISMOAK, haren jardura garatzean, Legea errespetatu eta ustelkeria forma guztien aurka borrokatu behar du. Ondorioz, DONOSTIA TURISMOAK erakunde pribatuekin, agintariekin edo funtzionario publikoekin egindako edozein jarduketa, akordio edo emakidaren aurka egin behar du, hauek ustelkerian edo desleialtasunean oinarritzen badira. Hori horrela izanik, legez kontrako edozein praktika ez burutzeko konpromiso tinkoa adierazi du, hala nola, kapitalen zurtzeari, funtzionario-eroskeriari eta eragimen-trafikoari dagokionez, eta era berean, hornitzaile, lehiakide eta Administrazio Publikoarekin duen hartu-emanei dagokionez..
- Hori horrela izanik, DONOSTIA TURISMOAREN Profesionalek ezin dituzte, zuzenean edo tarteko pertsona baten bidez, justifikatu gabeko abantaila edo onurak eskaini edo eman ezta eskatu edo onartu DONOSTIA TURISMOARENtzat, haientzat edo hirugarren batentzat oraingo edo etorkizunerako berehalako onura lortzeko helburuarekin. Bereziki, ezin dute edozein eroskeria edo komisio eman ezta jaso, inplikaturako edozein alderdik emandakoa edo eginikoa, hala nola, funtzionario publikoak, espainiarrak edo atzerritara, beste enpresa batzuetako langileak, alderdi politikoak, agintariak, bezeroak eta hornitzaileak. Eroskeria egintzak, berariaz debekatuta daudenak, zuzeneko edo zeharkako eskaintza edo promesak barne hartzen dituzte, edozein abantaila desegokirena, estalketarako tresnarena edo eragimen-trafikorena.
- Ildo beretik, DONOSTIA TURISMOAREN Profesionalek ez dute promes egingo, ezta opari edo ordainik egingo organo administratibo, judicial edo politikoetako tramiteak errazteko edo hauen emaitzak ziurtatu edo eragiteko. Opari edo ordainsariak debekatuta daude, tokiko gustu edo erabileren arabera kortesiatzat hartu ahal direnak izan ezik, Oparien Protokoloan ezarritakoaren arabera..
- Beste alde batetik, Profesionalek interesezko edozein balizko gatazka ekidin behar dute, Profesional baten eta DONOSTIA TURISMOAREN interesak, zuzenean edo zeharka, talka egitean. Kasu horietan, Profesionalek haien arduradunari komunikatu beharko diete, Batzorde Betearazlea jakinaren gainean egon eta gatazkari amaiera emateko neurriak hartzeko.





iv. Finantza informazioaren berne kontrola.

- DONOSTIA TURISMOAren informazio ekonomiko-finantzarioak zintzoki islatuko du haren errealitate ekonomiko, finantzario eta ondarezkoa, beti ere aplikagarriak diren orokorrean onartutako kontabilitate printzipioekin eta finantza-informazioaren nazioarteko arauekin bat datozenak. Hortaz, Profesionalek ezin izango dute kontabilitateko erregistro eta txostenetako informazioa ezkutatu ezta aldatu, informazioa osoa, zehatza eta egiazkoa izan behar delako.
- Hala, DONOSTIA TURISMOAk ardura handiz lan egingo du, edozelan ere kapitalen zurtzea eta terrorismoaren finantzazioa prebenitzeko jasotako funts edo ordainketen jatorri legala ziurtatuz.

v. Transparencia y lealtad en la relación con las autoridades fiscales y correcta utilización de los fondos públicos.

- DONOSTIA TURISMOAk zergei dagokionez jardunbide egokiak izateko konpromisoa hartuko du, Finantza Baliabideen Kudeaketa Ereduan aurreikusitakoaren arabera, zerga-araudia une oro betez eta Gipuzkoako Foru Ogasunarekin harreman egokia mantenduz, legez kontrako onurak eskuratzea debekatuz, baita zergak, atxikitako kopuruak edo atxiki beharrekoak ez ordaintzea eta gauzako ordainsarien konturako edozein diru-sarrera jasotzea ere, horien bidez bidegabeko itzulketak lortzen badira, edo indarrean dauden arauak ezarritako kontabilitateko, liburuen edo erregistroen betebeharrak betetzen ez badira
- Ildo beretik, Administrazio Publikotik dirulaguntzak, desgrabazioak edo laguntzak jasotzean, DONOSTIA TURISMOAk jasotako funtsen erabilera egokia bermatuko du, emandako helburuetara bideratzeko.



**Donostia
San Sebastián**

vi. Respeto a los derechos de Propiedad Intelectual y de Propiedad Industrial.

- DONOSTIA TURISMOAk hari eta hirugarrenei dagozkien Jabetza Intelektual eta Industrialaren eskubideak errespetatu eta defendatu behar ditu..
- Jabetza Intelektual eta Industrialaren eskubideak babesteko helburuarekin, zeintzuen titularrak diren edo legalki aitortutako edo hirugarrenei dagozkien eskubideak babesteko eskubideak dituzten, DONOSTIA TURISMOAren Profesionalek, besteak beste, hurrengo jokabideak debekatuta dituzte:
 - ✓ Egile-eskubideekin babestutako literatura-, arte- edo zientzia-lan bat publikoki banatzea, plagiitzea, kopiazea edo zabaltzea, Jabetza Intelektualaren edo haren lagapen-hartzaileen eskubideen titularren baimena izan gabe.
 - ✓ Hirugarren entitate baten zeinu bereizgarri (markak) berbera edo nahasgarria kopiazea, imitatzea, aldatzea edo usurpatzea (produktu, zerbitzu, jarduera edo establezimendu berak edo antzekoak bereizteko zeintzuentzako Jabetza Intelektualaren eskubidea erregistratuta dagoen), erregistratutako eskubidearen titularraren onspena izan gabe.
 - ✓ Komertzioan patenteek babestutako prozedura edo emaitzak inportatzea, izatea, erabiltzea, eskaintzea edo sartzea, haien titularren baimena izan gabe.





vii. Interes taldeekin harremana.

- DONOSTIA TURISMOAren Interes Taldeak, zuzenean edo zeharka, DONOSTIA TURISMOAren lanarekin lotuta dauden pertsona, erakunde, enpresa, instituzio edo talde ezberdinek osatzen dituzte.
- DONOSTIA TURISMOAK Interes Taldeekin harremana mantentzeko konpromisoa hartuko du, elkarrekiko errespetua eta konfiantza mantenduz eta legea betez.
- Hain zuzen ere, DONOSTIA TURISMOAK konpromisoa hartuko du Profesionalei informazio argia, egiazkoa eta osoa emateko, une oro DONOSTIA TURISMOAren ibilbidean balio iraunkorraren sorkuntza bermatuz.
- Halaber, DONOSTIA TURISMOAK bezeroen behar eta itxaropenak betetzeko konpromisoa hartuko du, konfiantzan, gardentasunean, bikaintasun profesionalean eta babesean oinarritutako merkataritza-harreman iraunkorren ezarpena sustatuz, eta horrez gain, bezeroen informazioaren konfidentzialtasun osoa bermatuz, hirugarrenei ez jakinaraziz, bezeroaren baimena izan ezean edo betebehar-legalagatik edo ebazpen judizial edo administratiboa betetzeagatik.
- Bezeroen izaera pertsonaleko datuen bilketa, erabilera eta tratamendua aurrera eramango da haien intimitate-eskubidea bermatuz eta izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko legea betez, eta aldi berean, informazioaren gizartearen, merkataritza elektronikoaren eta aplikatu daitezkeen gainontzeko xedapenen zerbitzuei buruzko legeak ezarritako eskubideak bermatuz.



- Bestalde, hornitzaile eta kontratistei dagokionez, DONOSTIA TURISMOAk orobat konpromisoa hartuko du konfiantzan eta informazio gardentasunean oinarritutako harremanak errazteko, hornitzaile eta kontratisten aukeratze-prozesua independentziaz eta objektibotasunez eginez, fidagarritasun, egokitasun, kalitate eta prezio estandarretan oinarrituz eta hornitzaileei Kode Etikoaren edukien berri emanez.
- Era berean, langileak eta sektoreko enpresariak ondo tratatzeko konpromisoa hartuko du, langileen funtsezko eskubideak bermatuz haien lanaren sasoikotasuna kontuan hartuz.
- Lehiakideei dagokionez, DONOSTIA TURISMOAk konpromisoa hartuko du merkatuan haren jarduera leialtasunez garatzeko, lehiakideak eta legea guztiz errespetatuz. Hirugarrenen informazioa modu legalean eskuratu behar da derrigorrean, DONOSTIA TURISMOAren Profesionalek ezingo dute inolaz ere beste enpresen edozein sekretu edo lehiakideen informazio pribilegiatua eskuratu.
- Azkenik, Administrazio Publikoari dagokionez, DONOSTIA TURISMOAk beti jokatuko du errespetu handiz, beti ere legea betez, lanean Agintariekin kolaboratuz eta une oro mesedezko tratua lortzea ahalbidetzen duen edozein opari edo emari lortzea saihestuko da.





viii. Administrazio-organoko kideen, zuzendari kudeatzailearen eta sail ezberdinetako arduradunen jokabide eredugarria.

- Administrazio-organoko kideak, zuzendari kudeatzaileak eta DONOSTIA TURISMOAko sail ezberdinetako arduradunak erreferente pertsonal eta profesionalak izan behar dira Profesionalentzako, haien jokabidearen bitartez zintzotasun eta betetze-kultura sustatuz, DONOSTIA TURISMOAren printzipio eta balioen eta Kode Etikoaren bidez hartutako konpromisoen etengabeko eredu izanik.
- Halaber, Profesional guztiek Corporate Compliancenen prestakuntza osatu dutela egiaztatu beharko dute, eta aldi berean, ulertu eta barneratu dutela.
- Bestalde, Profesionalen Kode Etikoaren eta Corporate Compliance Programa osatzen duten gainontzeko dokumentuen inguruko edozein zalantza edo kezka aurrean laguntza eskainiko dute, Betetze Batzordearen kolaborazioarekin, eta inolaz ere ezingo dute Legearen eta Kode Etikoaren kontra egin.





ix. Lankidetz, partaidetza eta kolaborazioa.

- DONOSTIA TURISMOAk gaitasun eta baliabide guztietako Profesionalen probetxu egoki eta hobe errazteko lankidetz, partaidetza eta talde lana sustatzen ditu.
- Profesionalek kolaboratu beharko dute, ezagutzak eta baliabideak emanez, DONOSTIA TURISMOAren helburu eta interesen lorpena errazteko, modu eraginkorrean lan eginez eta DONOSTIA TURISMOAk ematen dizkien baliabideak ondo aprobetxatuz eta erabiliz.

x. Irudi eta ospe korporatibo egokia.

- DONOSTIA TURISMOAk haren irudi instituzionala eta ospe korporatiboa Interes Taldeen konfiantza mantentzeko balio handiko aktibotzat hartzen du..
- DONOSTIA TURISMOAren Profesionalak jarduera profesional guztietan irudi eta ospea zaintzera behartuta daude, zuzenean edo zeharka kalteak eragin ditzaketen balizko jokabideak saihestuz.





xi. Intimitaterako eskubidea.

- Datu Pertsonalen Babesari dagokionez, DONOSTIA TURISMOAK indarrean dagoen legea betetzen du langileekin, bezeroekin, hornitzaileekin edo aukeratze-prozesuko hautagaiekin, besteak beste. Horregatik DONOSTIA TURISMOAK konpromisoa hartuko du egokiro mantentzeko, baimendutako xedeetarako erabiliz, eta ez ditu zabalduko interesatuen baimena izan ezean edo lege-ezarpenak hala arautzen duelako..
- Profesionalek konpromisoa hartuko dute komunikabideak, informatika-sistemak eta, oro har, beste baliabide batzuk modu arduratsuan erabiltzeko, horretarako ezarritako politika eta irizpideen arabera. Baliabide hauek ez dira erabilera pertsonalerako eta ondorioz, ez dira komunikazio pribaturako. Hori dela eta, ez dute pribatasun itxaropenik sortzen, DONOSTIA TURISMOAK kontrol betebeharretan ikuskatu behar izanez gero..
- DONOSTIA TURISMOAK haren Profesionalen izaera pertsonaleko datuak zabalduko ez dituela bermatuko du, interesatuen baimena izan ezean edo betebehar-legalagatik edo ebazpen judizial edo administratiboa betetzeagatik. Alde horretatik, haien lanagatik beste profesional edo enpresen datu pertsonaletara sartzen diren Profesionalek datu hauen konfidentzialtasuna mantentzeko konpromisoa hartuko dute.
- Inolaz ere ezin izango dira Profesionalen izaera pertsonaleko datuak legez edo kontratuz aurreikusitakoak ez diren beste helburu batzuetarako erabili.



xii. Ezkutukoa, isilpekoa eta pribilegiatua den informazioaren tratamendu egokia.

- DONOSTIA TURISMOArentzat informazioa eta ezagutza dira haren lanaren aktibo baliotsuenetakoak, eta horregatik babestu behar dira..
- DONOSTIA TURISMOAren jabetzako informazioa eta/edo hari emandakoa, orokorrean, ezkutuko eta isilpeko informazioa da, eta sekretu profesionala da, beraz ezin zaie hirugarrenei eman, DONOSTIA TURISMOAren berriazko baimena izan ezean inguruabarrek hala justifikatzen dutenean, edo horretarako legezko errekerimendua egiten denean, edo bidezkoa bada ebazpen judiziala edo administrazio-agintaritzaren ebazpena betez.
- DONOSTIA TURISMO eta Profesional guztien ardura da berriazko zein nahi gabeko baimendu gabeko edozein barne edo kanpo sarbide, manipulazio edo suntsipen arriskuren aurrean segurtasun-neurri nahikoa ezartzea ezkutuko eta isilpeko informazioa babesteko. Hau dela bide, DONOSTIA TURISMOAren Profesionalek, haien lanari dagokionez, hirugarrenekin duten harremanetan konfidentziasuna mantendu behar dute, bestela, araudiaren arabera zigortuak izango dira.

xiii. Jokabide profesional zuzena izatea.

- DONOSTIA TURISMOAren Profesionalek indarrean dagoen legea bete beharko dute eta osotasunaren, gardentasunaren, leialtasunaren, fede onaren eta arbitrariotasunaren debekuen printzipioetara egokitu beharko dira, irizpide etiko eta moralak mantenduz, modu zintzo, zuzen, arduratsu, neutral eta eraginkorrean lan eginez, profesionalki dedikazio osoa bermatuz.
- Profesional guztien betebeharra da hierarkiako nagusi hurrenari eta/edo, hala badagokio, Batzorde Betezarazleari izaera zigortzailea duen edozein prozedura judizial, penal edo administratiboren hasiera, bilakaera eta ondorioren berri ematea, zeinetan Profesionalen bat ikertua, erruztatua edo akusatua den eta haren lanean eragina izan ahal duen, eta hala badagokio, DONOSTIA TURISMOAk diziplina eta/edo zigor neurriak hartuko ditu.





- DONOSTIA TURISMOAren jardueratik kanpoko marko batean garatzen diren xede publikoak dituzten alderdi politiko edo beste elkarte, instituzio edo elkarterekin lotura, partaidetza edo kolaborazioa, izaera pertsonala argi utziz egin behar dira, hauekin edozein lotura saihestuz, une oro politikoki neutro mantenduz.
- FAzkenik, sare sozialetan, foroetan edo blogean DONOSTIA TURISMOAren Profesionalen sorkuntza, partaidetza eta kolaborazioa, eta hauetan burututako iritzi edo adierazpenak, izaera pertsonala argi utziz egin behar dira, DONOSTIA TURISMOAren izenean erabiltzea, aipatzea edo jardutea debekatuta baitago. Adierazpenak DONOSTIA TURISMOAren Profesional gisa egingo balira, modu ordenatu eta koordinatuan egin beharko lirateke, haren egokitasuna hierarkiko nagusiarekin aurrez egiaztatuz, beti ere komunikabideen aurrean DONOSTIA TURISMOAri dagokion informazioa sekretuan eta konfidentziaz gordez.

xiv. Berrikuntzaren sustapena eta informazioaren babesa.

- DONOSTIA TURISMOAren arabera, berrikuntza egungo enpresa-kudeaketarako eta egiten duten lana hobetzeko ezinbestekoa da. Hori dela eta, prozesu eta produktuen etengabeko hobekuntza eta ezagutza sustatuko da, eta horrez gain, hauek erabiltzean sortutako datuen, informazioaren eta ezagutzaren babesa bermatuko da..
- Honela, Profesionalek duten informazioa eta ezagutza babestu eta zainduko dute, haien lan profesionaleko funtzioak burutzeko behar dutena erabiliz modu arduratsu, eraginkor eta zuzenean, indarrean dauden baimen prozedurak betez.



xv. Osasun publiko eta ingurumenarekiko errespetua.

- DONOSTIA TURISMOAK osasun publikoari eta ingurumenari dagokion legea betetzen du. Hain zuzen ere, osasun publikoarekin zein ingurumenarekin lotutako balizko gertaerei dagokionez, babes eta etengabeko hobekuntza prozedurak ditu ezarrita, arlo honetako lege edo xedapen orokor babesle batzuen urratzea ekiditeko.
- DONOSTIA TURISMOAK ingurumena eta baliabide naturalak babesteko konpromisoa hartuko du.

xvi. Tradizio, tokiko kultura eta kultura ondarearekiko errespetua

- DONOSTIA TURISMOAK konpromisoa hartuko du turistei ulermen eta errespetuan laguntzeko eta baita tokiko tradizioak, praktika sozialak eta kultura sustatzeko ere. Baita ere tokiko tradizio eta kultura sustatzeko ere, tokiko produktu eta zerbitzuak sustatuz.
- Gainera, DONOSTIA TURISMOAK konpromisoa hartuko du gizadiaren ondare kulturala babesteko.





BATZORDE BETEARAZLEA

- Batzorde Betearazlea arduratu behar da Kode Etikoa eta Corporate Compliance Programa osatzen duten gainontzeko dokumentuak behar bezala eta modu eraginkorrean betetzeaz, DONOSTIA TURISMOAren Profesionalen ezagutza, hedapena eta ulermena bultzatuz eta era berean, gutxienez urteroko aldizkakotasunarekin berrikuspena eta beharrezkoa denean eguneratzea sustatuz.
- Halaber, Batzorde Betearazleak du legezko kontrako edozein balizko jokaeraren eta Kode Etikoak barne hartzen dituen printzipioen aurkako ikerketa sustatzeko eta egiteko eskumena, Diziplina- eta Zehapen-Erregimeneko Arauak aplikatuz.
- Profesionalen batek legez kanpoko edo Kode Etikoaren aurkako den gertakariren baten berri badu edo susmoak baditu, Corporate Compliance Programak barne hartutako Kanalaren Funtzionamenduaren Arauen arabera, Salaketen Kanalaren bitartez komunikatzeko betebeharra du.
- Batzorde Betearazleak urtero Kode Etikoa betetzeari buruzko txostena egingo du, eta DONOSTIA TURISMOAk egingo ditu aurreko txostenaren edukien arabera Kode Etikoaren aldaketa eta eguneraketak.

KODE ETIKOA INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA

- DONOSTIA TURISMOAren administrazio-organoak Kode Etikoa onartu du, indarrean sartu delarik eta indarraldi betean dagoelarik, aldaketarik ez dagoen bitartean.

